



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2019ko MARTXOAREN 26an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2019ko martxoaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Xabier Mugika Letamendia  
*Onintza Gorostidi Murua*

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**  
✓ 2019ko otsailaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2018 Ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
- 5. 2019 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6. Kirol batzordeak, 2018 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 7. Kirol batzordeak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, 2019 urteari dagokiona.**
- 8. Alkizako Herri Eskolak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 9. Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 10. Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

11. Belako publiziate eta komunikazioak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.
12. 2019-KALD-000001-00 kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada.
13. 2019 ekitaldirako langileen ordainsariei buruzko Eudelek eginiko gomendioaren onespena, hala bada.
14. Alkizako Alkiza plaza 27 A etxearen lorategian igerileku bat egiteko obra baimena eskaera, I.G.
15. Alkizako Areta bidean baserriko makinaria babesteko estalpe bat egiteko obra baimena eskaera, A.M.
16. Alkizako Iriolatza etxean portxearen atzekaldea eta albo bateko zati bat ixteko obra baimena eskaera, E.S.
17. Alkizako Arana auzoa, Plaza gunea eta Azaldegi auzoan dauden zabor ontzien zoladura egokitzeko lanen esleipena, hala bada.
18. Fosari hargune (acometida) berria egiteko lanen esleipena, hala bada.
19. Ur hartune berria aztertzeko edukieraren (aforos) azterketa eta kontrola egiteko lanen esleipena, hala bada.
20. Beste batzuk.
21. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

### **LEHEN PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2019ko otsailaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

21/2019 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 1ekoa, Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, M.E.M. jaunari esleitzea sei hilabetez, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

22/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 6koa, J.R.A. jaunari Arburu mendiko ustiapenari erabilpen egoki bat emateko 2014. Urtean jarritako fidantza bueltatzea, ebazten duena.

23/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 6koa, M.E.M. jaunari Udalak duen apartamentua erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

24/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 7koa, Alkizako Saletxe baserriaren sotoan nekazal biltegi bat egokitzeko obra baimena ematea, ebazten duena.

25/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 15ekoa, 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

27/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Exclusivas de quimicos y servicios S.L. ri udalak dituen lokal ezberdinetako produktuak erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

28/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, National Pen enpresari boligrafoak erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

29/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Zuri Arrain enpresari Alkizako Apaiz etxean purgadore automatikoa jartzeko kontratua esleitzea, ebazten duena.

30/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Lau Haizetara enpresari Alkizako Herri Ostatuko aldagelan hainbat lan egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

31/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Copy-tec enpresari udalerako agenda bat erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

32/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Lefebre el Derecho enpresari Alkizako "administración pública" datu basea erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

33/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Iker Ugalde Gorostiaga enpresari Alkizako sormenaren kabia proiektuaren barruan bideo ekoizpen lana egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

34/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Antonio Elozegi enpresari, Alkizako ur hornidurarako materiala erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

35/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, M.Uranga enpresari Herri Ostatuko ontzi garbigailua konpontzeko kontratua esleitzea, ebazten duena.

36/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Recambios Ibarra enpresari herriko ibilgailuarentzat hainbat pieza erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

37/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Kuku-Lore enpresari, hainbat liburu erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

38/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Amazon.es enpresari udal bulegorako swich bat erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

39/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Amazon.es enpresari udal bulegorako kultur etxeko ekipo informatikoentzat said bat erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

40/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Lanku enpresari emakumeen egunaren ekintzen barruan, bertso poteo zerbitzurako kontratua esleitzea, ebazten duena.

41/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Zizurkil elektrizitatea enpresari Alkizako kultur etxean eta kanposantuan elektrizitate konponketa lanak egiteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

42/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Rentokil initial enpañã enpresak bere zerbitzua eskeintzeko kontratua esleitzea, ebazten duena.

43/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Euskal Hotz enpresari Herri ostatuko sukaldeko garbigailua konpontzeko kontratua esleitzea, ebazten duena.

44/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Dionisio Ormazabal enpresari, Alkizako herri lanetarako hainbat material erosteko kontratua esleitzea, ebazten duena.

45/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 25koa, 1/2019 Kreditu Aldaketaren hasierako onespena, ebazten duena.

46/2019 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 26koa, Maderas Garmendiari fidantza bueltatzea, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

EUSKALTEL	108,30
CORREOS	4,75
QUISER	105,08
IBERDROLA	51,44
KOMUNIKAZIOA BIZIAGOA	156,00
ITURRALDE INDUSTRIGAIK	23,46
EUSKAL-HOTZ	726,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	560,10
SOLRED	61,50
EBA ERKIZIA	2.176,71
CORREOS	5,58
ULAHI	256,97
NORTEGAS	6,05
ARGITU	206,43
ULAHI	569,22
M.URANGA	315,51
GOIEKO	251,68
KOLDO NUÑEZ	250,00
KUKU-LORE	38,70
IZFE	43,62
QUISER	242,67
MOVISTAR FIJO	168,95
BIDATEK	1.118,04
IZADI	152,94
NATIONAL PEN	96,20
ZURIARRAIN	57,11
LAU HAIZETARA	889,65
COPY-TEC	6,06
LEFEBRE EL DERECHO	1.576,07
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	281,25
EUSKALTEL	105,64
ACSOL	336,45
ACSOL	189,72
ACSOL	93,78



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ACSOL	52,71
ACSOL	54,93
ACSOL	35,61
ACSOL	666,71
ACSOL	146,23
ACSOL	448,56
ACSOL	38,50
ANTONIO ELOSEGUI	23,74
M.URANGA	55,66
RECAMBIOS IBARRA	13,10
KUKU-LORE	52,65
ARGITU	223,49
CORREOS	13,75
SOLRED	60,00
NORTEGAS	389,85
NORTEGAS	113,74
NORTEGAS	289,98
MOVISTAR FIJO	80,53
MOVISTAR FIJO	174,56
ACSOL	440,86
AMAZON	61,95
AMAZON	154,90
LANKU BERTSO ZERBITZUAK	582,62
IZADI LABORATEGIA	152,94
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	167,95
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	167,95
DIONISIO ORMAZABAL	20,68
RENTOKIL	465,85
EUSKAL-HOTZ	237,16
ANTONIO ELOSEGUI	23,74
KIMU AROZTEGIA	399,30
MERTXE AIZPURUA	150,00
KUKU-LORE	16,20
GARAZI DORRONSORO	122,10
BULEGOAK	259,01
IBERDROLA	42,56
TOLOMENDI	163,95
TOLOMENDI	163,95



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

NORTEGAS	5,11
----------	------

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **17.964,71** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **2018 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Ondoren batzarkideei 2018 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2018/14 zenbakia duen eta 2018ko martxoaren 19an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

### 2019/25 DEKRETUA

Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		183.165,28
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		79.303,38
Aurrekontuko zordunak :	69.751,37	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	9.552,01	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		152.223,18
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	138.352,53	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	13.870,65	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		110.245,48
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	110.245,48

**AURREKONTUKO EMAITZA**

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-22.303,57
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-363,57
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	113.131,30
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	90.464,16

**KREDITU GERAKINAK**

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	0,00

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

**Laugarrena.-** Batzarkideei jakitera ematea, Plan Ekonomiko finantzarioa egin behar dela.

**BOSTGARREN PUNTUA**

**2019 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAEN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2019 urterako udal zergen hobarien deialdia onestu dela, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan eskatu daiteke, eta Trakzio mekanikoko





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, famili ugaria izateagatik eta motorraren arabera eskatu daitezke.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2019ko otsailaren 1ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2019ko otsailaren 28-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean hamalau hobari eskaera egin direla, hauetatik, 10 eskaera famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik, ondasun higiezin gaineko zergan, eta 4 eskaera, famili ugaria izateagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

Ikusirik, hamalau eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jon Umerez eta Jose Ramon Hernandez, alkate eta zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.R.H.. Jaunak egin duen 2019 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BIGARRENA: J.M.G. Jaunak egin duen 2019 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: G.C. andreak egin duen 2019 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

LAUGARRENA: I.U.U jaunak egin duen 2019 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BOSTGARRENA: I.Z.S. jaunak egin duen 2019 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

SEIGARRENA: A.G.A. jaunak egin duen 2019 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

hobaria.

ZAZPIGARRENA: M.D.A. andreak egin duen 2019 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

ZORTZIGARRENA: M.K.M.A. andreak egin duen 2019 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

BEDERATZIGARRENA: J.G.Z. jaunak egin duen 2019 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

J.G.Z. jaunak egin duen 2019 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMARGARRENA: A.E.G. jaunak egin duen 2019 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

A.E.G. jaunak egin duen 2019 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMAHIRUGARRENA: G.G.A. jaunak egin duen 2019 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMALAU GARRENA: U.O.L. andreak egin duen 2019 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMABOSTGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**KIROL BATZORDEAK, 2018 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

*Onintza Gorostidi zinegotzia arratsaldeko 20:00 orduetan bertaratzen da Udalbatzarrera.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako Udalak, 2018 urtean Kirol Batzordeari 2.500,00 eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Kirol Batzordeak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2018. Urteari dagokion gastuen kitapena, ondorengo izanik:

## 2018KO GASTUEN KITAPENA KIROL BATZORDEA

### - SAN ISIDRO

Frontenis Txapelketa	
Trofeoak+ txapelak	688€
Pelotak frontenis	112.87€
Ginkana	159.64 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>960.51€</b>

### - HERRIKO FESTAK

Pelota Txapelketa:	
Pelotak	100 €
Trofeoak+ txapelak	763.8 €
Sagardoa	24€
Jokalari Onenaren Saria	49.90€
Walkie Talkie-a	78.99 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>1016.69 €</b>

### - SAN MARTIN

Lau terdiko Txapelketa: txapela+trofeoak	165€
Mus eta Eskoba Txapelketa	123€
<b>GUZTIRA</b>	<b>288€</b>

- TXIRRINDULARI IGOERA: 181.88€ (TROFEOAK)

- SAN SILVESTRE LASTERKETA: 126€ (TROFEOAK)

**GASTUAK: Guztira**

**2.573,08 €**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

<b>SARRERAK:</b> Udaletxea	2.500,00€
Frontenis txapelketa	200,00€
Pelota txpelketa	50 €
<b>SARRERAK GUZTIRA :</b>	<b>2.750,00€</b>

<b>Geratzen zaigun dirua:</b>	<b>176,92€</b>
-------------------------------	----------------

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa,

**ERABAKITZEN DU:**

BAKARRA.- Kirol Batzordeak, aurkezturiko 2018 Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**

**KIROL BATZORDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Kirol Batzordeak eginiko eskaera, non azaltzen duten 2019 urterako prestatu nahi dituzten ekintzak burutu ahal izateko laguntza ekonomikoa behar dutela.

Ikusirik 2019 urteko aurrekontuetan, Alkizako Kirol Batzordeari esleitzeko 2.500,00 eurotako partida bat dagoela, 481.340.00.01 alegia.

Ikusirik 2019 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Alkizako Kirol Patronatuari 2.500,00.- eurotako diru-laguntza ematea, 2019 urtean prestatu dituzten ekintzak burutu ahal izateko, udal aurrekontuetako 481.340.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA: 2.500,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Kirol Batzordeari jakinaraztea, urte bukaeran, urtean zehar eginiko ekintzei buruzko gastuen kitapena aurkeztu beharko dutela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako Kirol Batzordeari ematea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik, Alkizako Herri Eskolaren funtzionamendu egokia ahalbideratzeko, eginiko diru-laguntza eskaera, bertan, ikasturtean zehar egingo dituzten egitasmoen berri ematen dutelarik.

Ikusirik, Udal aurrekontuetako 481.320.00.01kontu sailan 1.335,00 euro aurrikusi direla, Alkizako Herri Eskolarentzat.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 1.335,00 eurotako diru-laguntza ematea, burutu behar dituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA.-1.335,00eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2019 urteko Udal aurrekonturen 481.320.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Alkizako Herri eskolari jakinaraztea, **Udalak emandako diru-laguntza zuritu beharko duela, Udaletxe honetan izan dituen gastuen berri emanaz, dagozkion fakturak aurkeztuaz.**

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri Alkizako Herri Eskolari jakinaraztea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **OARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusirik Oargi Mendi Elkartek eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2019ko ekainaren 16an ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrak) maratoiaren V. Eta T2T erdi maratoiaren III. edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, parte-hartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 374 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2019ko ekainaren 16an ospatuko diren T3T V. Eta T2T III. edizioetan antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 374,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2019 urteko Udal aurrekontuetako 481.340.00.02 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.

#### **HAMARGARREN PUNTUA**

#### **HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkartek eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik 2019 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.04 partidari aurrikusi dela diru kopuru nahikoa aipaturiko diru-laguntza esleitu eta ordaintzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale elkarteari 500,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: 500,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2019 urteko Udal aurrekontuetako 422.334.00.04 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari ematea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**HAMAIKAGARREN PUNTUA**  
**BELAKO PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA**  
**ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2019 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariari diru-laguntza moduan harpidetza eskaera kontutan hartzea eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udala, 2019 urtean, Txantxangorri aldizkariaren harpidetza egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

**HAMABIGARREN PUNTUA**  
**2019-KALD-000001-00 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO**  
**ONESPENA, HALA BADA**

Udala honen 2019 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espediente aplikagarria zaión araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.220.920.00.02 2019	PRENTSA ALDIZKARI ETA BESTE	700,00	300,00	1.000,00
1 0000.226.172.00.06 2019	ingurumena babesa iharduerak: Fagus	3.000,00	1.210,00	4.210,00
1 0000.683.933.00.02 2019	HERRI OSTATUKO BERRIKUNTZAK	1.000,00	25.000,00	26.000,00
1 0000.211.933.00.01 2019	herriko ostatua konponketak	2.000,00	2.000,00	4.000,00
1 0000.481.335.00.01 2019	KORRIKA DIRULAGUNTZA	0,00	600,00	600,00
1 0000.227.493.00.07 2019	datu babeserako legera egokitzapena	800,00	645,00	1.445,00
1 0000.422.943.01.01 2019	TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA	2.600,00	192,00	2.792,00
<b>GUZTIRA</b>		10.100,00	29.947,00	40.047,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2019	KREDITU GERAKINA 2018	29.947,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>29.947,00</b>

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

### **HAMAIRUGARREN PUNTUA**

## **2019 EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO EUDELEK EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendia, non ondorengoa dioen:

### **“2019KO ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO ZIRKULAR INFORMATIBOA 24/2018 ERREGE LEGE-DEKRETUA**

2018/12/27an argitaratu zen EAOn **2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretua: horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.**

Aipatutako Errege Lege-dekretu horretan araututa daude langile publikoen 2019. urteko ordainsarien igoerak, eta, horren harira, soldata igoera finkoa dago aurreikusita; horri, ekonomia haztearekin lotutako igoerari dagokion ehuneko gehigarria gehitu beharko zaio.

2018ko uztaillean, EUDELEK zirkular bat bidali zuen, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 6/2018 Legean jasota dauden 2018ko ekitaldirako ordainsari igoera aplikagarrien inguruko gomendio egokiekin, eta, orain, 24/2018 Errege Dekretu-legea argitaratu ostean, gomendio berdin-berdina egitea komeni da 2019ko ordainsari igoerei dagokienean.

Hain zuzen, **24/2018 Errege Lege-dekretuaren 3. Bi artikuluan** hau dago xedatuta:

**- 2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneotasunari lotuta, bai langileei eurei dagokienez, eta bai langileriaren antzintasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko desberdinak, orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileriaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.**

**- Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean apalagoa izango da,**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:**

**BPGd 2,1aren berdina: %2,30.**

**BPGd 2,2aren berdina: %2,35.**

**BPGd 2,3aren berdina: %2,40.**

**BPGd 2,4aren berdina: %2,45.**

**Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulu aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldez aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.**

**- Gainera, soldata masaren ehuneko 0,25eko igoera gehigarri bat baimendu ahal izango da, beste neurri batzuen artean, honakoak egin ahal izateko: produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezarri, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuen artean berariazko osagarriak berraztertu, lanpostu mailako osagarriak homologatu edo pentsio planetan ekarpenak egin. Artikulu honetan 2018ko ekitaldian aurrekontu superabit egoeran zehaztutako Administrazioetan eta sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori ehuneko 0,3ra bitartekoa izan daiteke.**

Artikulu honek hitzez hitz dioena ezagututa, eta horrek izan ditzakeen irakurketak argitzeko asmoz, EUDELeK egokitzen jo du Euskadiko udalei honako **GOMENDIO** hau egitea:

- **Aipatutako 3. Bi artikuluko lehenengo paragrafoaren** inguruan, 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora **igotzea**, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarieko **%2,25**.

- **Aipatutako 3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez**, une honetan ez da ezagutzen sortutako soldata masaren igoeraren ehuneko zehatza. Hori dela-eta, Ministro Kontseiluak dagokion zehaztapena eta onespena emateko zain egon behar da, betiere, une honetan egokiak diren aurrekontu esleipenak hornitu ahal izateari kalterik eragin gabe. 3. Bi artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, igoera hori, dagokionean, 2019/07/01etik aurrera gehituko litzateke.

- **Aipatutako 3. Bi artikulua azken paragrafoarekin lotuta**, eta udal autonomiari kalterik eragin gabe, 2018ko ekitaldian\* aurrekontu superabit



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

egoera izan duten Euskadiko udalei **gomendatzen diegu**, euren finantza eta aurrekontu aukeren neurrian, soldata masaren **0,3ko** igoera gehigarria baimentzeko. Aipaturiko munta 3. artikulua Bi, azken paragrafoan, edo aplikatzekoa den beste edozeinetan jasotako lege-formulen bitartez banatuko da, hau guztia beti negoziazio kolektiboaren eta udal autonomiaren barruan. 2018ko ekitaldian aurrekontu superabit egoerarik bizi izan ez duten udaletarako, EUDELen gomendioa da igoera hori soldata masaren **%0,25ekoa** izatea.

GOMENDIO horren bitartez, EUDELeke legezko agindu horren irismena zenbaterainokoa den argitu nahi du, eta, aldi berean, hori interpretatzeko duen interesa jasota gera dadin bermatu, legezketasunaren barruan, langile publikoentzat modurik onuragarrienean, betiere, erakundeen efikazia eta lan-ingurunearen kalitatea hobetu ahal izateko. Horrek guztiak etorkizunean aurrerapausoak egiteko bidea prestatzeko aukera emango duen uste sendoa dugu, UDALHITZ Hitzarmen Arautzaile berri bat lortzera jo behar duen hitzarmen kolektibo baten baitan.

EUDELeke berretsi egiten du "UDALHITZ 2008 2010 Hitzarmena" hitzez hitz betetzearen garrantzia, lortutako akordioak egiaz betetzean baitatza haren berme nagusia, eta, gainera, sektore mailako hitzarmen berria eskuratu ahal izatea bidezkozat jotzeko balio du.

\* "Aurrekontu superabita" esapideari dagokionez, ulertzen da gure esparruan *Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren* 11. artikuluan xedatuaren arabera interpretatu behar dela; Lege horretan arautzen da aurrekontu egonkortasun printzipioaren instrumentazioa; hori guztia, kalterik eragin gabe dagokien eran eskumena duten erakundeek kontu hori kalkulatzearen inguruan eman beharko lituzketen azalpenei edota argibideei. "

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2019 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 1. eta 2.go puntuak bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Ondorengoak izanik:

- **Aipatutako 3. Bi artikuluko lehenengo paragrafoaren** inguruan, 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora **igotzea**, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko **%2,25**.
- **Aipatutako 3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez**, une honetan



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ez da ezagutzen sortutako soldata masaren igoeraren ehuneko zehatza. Hori dela-eta, Ministro Kontseiluak dagokion zehaztapena eta onespena emateko zain egon behar da, betiere, une honetan egokiak diren aurrekontu esleipenak hornitu ahal izateari kalterik eragin gabe. 3. Bi artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, igoera hori, dagokionean, 2019/07/01etik aurrera gehituko litzateke.

BIGARRENA: 2019 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 3. Puntua mahai gainean uztea, gaia hobeto argitu arte.

### **HAMALAU GARREN PUNTUA**

#### **ALKIZAKO ALKIZA PLAZA 27A ETXEAREN LORATEGIAN IGERILEKU BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKERA, I.G.**

Ikusirik, I.G. jaunak eginiko eskaera, non Alkiza Plaza 27A etxearen lorategian igerileku bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2019ko martxoaren 7an eginiko txostenean dioena:

#### **“ALKIZAKO ALKIZA PLAZA 27 A ETXEAREN LORATEGIAN IGERILEKU BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

I.G.I. jaunak, Alkiza Plaza 27A etxearen lorategian igerileku bat egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua eta igerilekuaren kokapenaren plano bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Alkiza Plaza 27A etxearen inguruko lursailean, 23,73 m<sup>2</sup>-ko azalera eta 1,25 m-ko altuera duen igerileku jarri nahi da. Aurrekontuan, igerilekuaren ezaugarriak eta lanak deskribatzen dira. Igerilekuaren instalazioaren aurrekontua BEZ-a gabe, 5.292,13 €-koa da.

Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6<sup>o</sup> artikulua arabera, oin berriko mota guzietarako instalazioak eraikitzeke obrak, aurretiazko udal lizentziari loturik daude.

Alkiza Plaza 27A etxea, Alkizako lur hiritargariaren barruan sartua dago, bereziki UEU14 unidadean. Igerilekuaren erabilera ez dago debekatua honelako kategorian.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Arau sanitarioez gain, ondorengo baldintzak bete beharko ditu igerilekuak;

- Igerilekuaren perimetroa eta ondoko lursailaren mugaren arteko distantzia 3m-koa izango da gutxienez.
- Igerilekuaren ur hargunean **erretentzio balbula** bat jarriko da, ur sare orokorraren hustutzea ematen bada, igerilekuko urek azkeneko hau kutsatu ez dezaten.
- Igerilekua gauetan beteko da, gainontzeko bizilagunek egunez arazorik gabe ura izan dezaten. Gainera, herrian lehorte handi bat ematen bada, udaletxeak igerilekuaren ur-hartunea mozteko ahalmena izango du.

Igerileku pribatua, bizitegi erabileraren elementu osagarri bat bezala hartuaz eta aurrekoa betetzen bada, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

\*Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, eraispin-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- I.G.I.. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Alkiza plaza 27A etxearen lorategian, igerileku bat egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

#### **HAMABOSTGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO LETE BASERRIAREN 04029 LURSAILEAN ESTALPE BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.M.**

Ikusirik, A.M. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Lete baserriaren 01029 lursailean estalpe bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2019ko martxoaren 22an eginiko txostenean dioena:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

